BIZKAIA ENPRESA
BILERA•ENCUENTRO

BIZKAIA ENPRESA
BILERA•ENCUENTRO
2017

# Beaz 2017 Bizkaia

**Hazkundearen bidetik aurrera**

Crecemos con nuestros proyectos





**Imanol Pradales**

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko foru diputatua

Diputado foral de Desarrollo Económico y Territorial

"Enpresa-sarearen hazkundeak Bizkaiko aberastasun eta enpleguaren hazkundea ekarriko du". Horrela laburtzen du Imanol Pradales Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko diputatuak lurraldean jarduera ekonomikoa sortzeko eta Bizkaia hobe baterantz aurrera egiteko Bizkaiko Foru Aldundiaren estrategiaren parte bat. Hori lortzeko Sailak enpresen lehiakortasunari laguntza ematearen aldeko apustuari eusten dio, programa berriak eta aurrekontu-hornidura handiagoak baliatuz

**Zer diagnostiko egiten duzu gaur egungo egoera ekonomikoari buruz?**
Begien bistakoa da hobeto gaudela. Euskal ekonomia %3 inguru hazten ari da eta, nahiz eta apalki izan, langabezia tasa jaisten ari da. Zuhurtziaz bada ere baikorra naiz, eta uste dut erakundeok agertoki hobe baten aurrean gaudela aprobetxatu ahal eta behar dugula hazkunde-politikak bultzatzeko. Hazkunde burutsua izaten lagunduko duten politika aktiboei buruz ari naiz.

**Zeintzuk dira Aldundiak hazkundea bultzatzeko dauzkan tresnak?**
Bizkaiko Foru Aldundiaren gisako erakunde batek ezin ditu sortu jarduera ekonomikoa eta enplegua dekretuen bidez, baina baldintza egokiak sortzen lagun dezakegu eta, horretarako, garrantzitsua da gure enpresak haz daitezela, nazioarteko merkatuetan posizionamendua lor dezatela eta berritzen jarrai dezatela. Joan den urtean abian jarri genuen 3i programak 500 000 eurorainoko diru-laguntzak eskaintzen ditu lehiakortasunaren hiru zutarrien proiektuetarako: inbertsioa, berrikuntza eta nazioartekotzea. Oso arrakastatsua izan zen eta aurten berriro zabaldu da deialdia 4 800 000 euroko aurrekontu-hornidurarekin, %128 gehiago.

**Zer enpresa motatara espero duzue heltzea?**
Bizkaiko enpresa-sarea enpresa txiki eta ertainek osatzen dute eta programa gero eta espezifikoagoak prestatzen saiatzen ari gara. Horretaz, 3iko aurrekontu-gehikuntzaz gain, aurten martxan jarriko da 100 langile arteko enpresen lehiakortasuna bultzatzeko programa berria, guztira 4 milioi eurorekin hornituta. Eta legealdi honetan jaio eta gure ustez fruitu onak emango dituen beste proiektu garrantzitsu bat Elkarlanean da, berrikuntzarako enpresen lankidetza bultzatzeko. Hain zuzen ere sortzeko abiaburua izan zen gure enpresek tamaina handiko proiektuei ekin diezaieketela elkarrekin badoaz, jakintza eta sinergiak konpartituz

**Zer emaitza espero duzue?**
Gure ustez programa berriok behin-betiko bultzada eman ahal diete nazioartean zabaltzeko prozesuan ari diren enpresei, nazioartekotze-prozesuei helduz nahiz berrikuntzaren trenera igoz. "Ezkutuko txapeldunak" deritzoten enpresak dira, H. Simon alemaniar irakasleak sortutako kontzeptuari jarraiki; hau da, oso espezializatuta dauden enpresak, globalki merkatu-nitxo jakin batean lehiatzen direnak. Enpresa hauek ez dira oso ezagunak jendartean baina Bizkaiko ekonomiaren motorra izan daitezke geroan.

**Eta zer diozu enpresa berriak sortzeari buruz?**
Uste dut Bizkaiko Foru Aldundiak ekarpen erabakiorra egin duela lurraldean ekintzailetzarako eta enpresa-proiektu berriak bizkortzeko ekosistema egokia sortzen. Aurten startup berritzaileak sortzeko eta garatzeko programen aurrekontua 4,5 milioi eurorekin hobetu dugu. Gainera, 1,1 milioi eurotara igo da enpresak inkubatzeko sarerako partida eta 1,25 milioi eurotara startup eta Enpresa Txiki eta Ertainen finantziazioa, Seed Capital-en bidez. Hala ere, fase berri bati ekiten ari gara. Gure erronka ekintzailetza-sistema indartzea da, nahiko masa kritiko eta ezaugarri bereizgarriekin nazioartean Europako erreferentziako helmuga bezala kokatzeko.

"El crecimiento del tejido empresarial será el crecimiento de la riqueza y el empleo en Bizkaia", así resume el diputado foral de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, parte de la estrategia de la Diputación Foral de Bizkaia para generar actividad en el territorio y avanzar hacia una Bizkaia mejor. Para lograrlo, el Departamento apuesta por volcarse en el apoyo a la competitividad de las empresas con nuevos programas y mayores dotaciones presupuestarias

**¿Qué diagnóstico hace del actual momento económico?**
Es evidente que estamos mejor. La economía vasca está creciendo en el entorno del 3% y, aunque tímidamente, disminuye la tasa de desempleo. Soy prudentemente optimista y creo que las instituciones podemos y debemos aprovechar que estamos ante un mejor escenario para impulsar políticas de crecimiento. Y me refiero a políticas activas que redunden en un crecimiento inteligente.

**¿Con qué herramientas cuenta la Diputación para impulsar el crecimiento?**
Una institución como la Diputación Foral de Bizkaia no puede generar actividad económica y empleo a golpe de decreto, pero sí podemos contribuir a generar las condiciones y para ello es importante que nuestras empresas crezcan, se posicionen en mercados internacionales y sigan innovando. El pasado año pusimos en marcha el programa 3i que ofrece ayudas de hasta 500 000 euros para proyectos que se ocupen de las tres palancas de competitividad: inversión, innovación e internacionalización. Fue un gran éxito y este año se ha vuelto a abrir la convocatoria con una dotación presupuestaria que alcanza los 4 800 000 euros, un 128% más.

**¿A qué tipo de empresas esperan llegar?**
El tejido empresarial de Bizkaia está conformado por pymes y estamos tratando de hacer programas cada vez más específicos. Así, además del incremento presupuestario del 3i, este año se va a poner en marcha un nuevo programa de impulso a la competitividad de las empresas de hasta 100 empleos con una dotación total de 4 millones de euros. Y otro proyecto de calado que ha nacido esta legislatura y creemos que va a dar buenos frutos es Elkarlanean para la cooperación empresarial para la innovación, que nace precisamente del análisis de que nuestras empresas pueden afrontar proyectos de envergadura si lo hacen de la mano, compartiendo conocimiento y sinergias.

**¿Qué resultados esperan?**
Creemos que estos nuevos programas pueden dar el empujón definitivo a empresas que se encuentran en proceso de expansión internacional, abordando procesos de internacionalización o subiéndose al tren de la innovación. Las empresas que se conocen como "campeones ocultos", siguiendo el concepto acuñado por el profesor alemán H.Simon; es decir, compañías altamente especializadas y que compiten globalmente en un nicho de mercado determinado. Empresas con poca visibilidad pública pero que están llamadas a ser el motor de la economía de Bizkaia.

**¿Y qué me dice de la creación de nuevas empresas?**
Creo que la Diputación Foral de Bizkaia ha contribuido de una manera decisiva a crear en el territorio un ecosistema adecuado para el emprendimiento y la aceleración de nuevos proyectos empresariales. Este año hemos mejorado el presupuesto de los programas de creación y desarrollo de startups innovadoras, con 4,5 millones de euros. Además, se ha elevado a 1,1 millones de euros la partida para la red de incubación de empresas y a 1,25 millones de euros la financiación de startups y pymes a través de Seed Capital.
No obstante, estamos abordando ya una nueva fase. Nuestro reto es fortalecer el ecosistema emprendedor con masa crítica y atributos diferenciales suficientes como para posicionarnos internacionalmente como un destino europeo de referencia. En suma, queremos seguir creciendo en esta área.

**Programak, zerbitzuak eta ekimen estrategikoak Beazen eguneroko jardunaren barruan dauden hiru lan-arlo dira. Ainara Basurko zuzendari nagusiak haietako bakoitzak 2016an eman duenaren balantzea egin du, dibertsifikazio eta hazkundearen ideia nabarmenduz. Ohikoak ez diren programa eta zerbitzuetan parte hartzen duten enpresak, berrikuntza irekia bultzatzen duten antolakundeekin izandako lankidetza berriak… Berritasun hauek agerian uzten dute enpresa eta ekintzaileek beren perspektibak eta, horiekin batera, enpresen hazkunderako bideak zabaltzeko gogoa dutela. Hain zuzen ere Beazek sozietate publiko bezala gogo eta eskari horri erantzuna eman nahi dio bere eskaintza etengabe gaurkotuz.**

Programas, servicios e iniciativas estratégicas son tres áreas de trabajo que conforman el día a día de Beaz. Ainara Basurko, su directora general, hace balance sobre lo que cada una de ellas ha dado de sí en 2016, destacando la idea del crecimiento y la diversificación. Empresas que participan en programas y servicios diferentes a los habituales, colaboraciones inéditas con organizaciones que impulsan la innovación abierta… Novedades que reflejan el deseo de las empresas y personas emprendedoras de ampliar perspectivas y, con ellas, sus vías de crecimiento empresarial. Deseo, demanda, a la que Beaz como sociedad pública intenta dar respuesta actualizando en todo momento su oferta.



## Ainara Basurko

Beazko zuzendari nagusia
Directora general de Beaz

**Beaz proiektu berritzaileak garatzeko ekintzaileei eta enpresei laguntza ematen dien Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren foru erakundea da. 2016an laguntza jaso duten proiektuei dagokienez zein da zure balorazioa?**
Lagundutako proiektu kopurua aurreko urtekoaren berdintsua da; zehazkiago, 2016an 560 ekimen baino gehiago onartu da. Ditugun aurreikuspenen arabera, diruz lagundutako proiektu hauek hiru urtetan 1600 lanpostu baino gehiago sortzea eta 300 milioi euro inguru fakturatzea ahalbidetuko dute.
Enpresa proiektu berriei dagokienez, ugariagoak izan dira ekonomia digital, energia eta ekipo osagarriak eta biozientzien alorrean koka daitezkeenak.
Berrikuntza eta Nazioartekotze programei gagozkiela, nabarmentzeko modukoa da metalezko produktuen eraldaketa, industria ekipo, energia eta ekipo osagarriak eta fabrikazio eta muntatze sektoreetako enpresek aurkeztutako proiektu kopurua.
2015. urtearekin alderatuta, esanguratsua da badauden ekimen berritzaileak bizkortzeko eta erronka berriak martxan jartzeko Beazek eskaintzen dituen bestelako programa eta zerbitzuetan parte hartu duten enpresen kopurua handitu egin dela.

**Zeintzuk dira areagotu diren programa eta zerbitzu horiek?**
2016an Bizkortze Zerbitzua bultzatu dugu Bizkaiko Foru Aldundiak MassChallenge eta Cambridge Innovation Center nazioarteko enpresa-bizkorgailu nagusiekin sinatu dituen hitzarmenei esker. Hitzarmen horiei esker Bizkaiko startupek hazteko helburu jakinekin lan egin ahal dute sei hilabetez Bostonen, ekintzailetzan munduko erreferentzia den inguruan.
Bestalde, berrikuntza irekiko programak garatzen esku hartu dugu eta hor Bizkaiko enpresa erreferenteen eta startupen artean lankidetza-marko berriak sortu dira, 4.0 industriaren inguruan enpresen dibertsifikazio edota berrikuntza proiektuak garatzeko.
Programa horietako bi Bizkaia Open Future eta Bind 4.0 dira, 2017an jarraipena izango dutenak, izan ere erakutsi dute bide egokia direla enpresa eragileetan barne-ekintzailetza proiektuei ekiteko eta, aldi berean, startup teknologikoei aukera ematen die merkatura eta erreferentziako bezeroengana heltzeko.

**Beaz, entidad foral del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial, acompaña a las personas emprendedoras y empresas en el desarrollo de proyectos innovadores. ¿Qué valoración hace de los proyectos apoyados en 2016?**
El número de proyectos apoyados ha sido muy similar al del año anterior; en concreto en 2016 se han aprobado más de 560 iniciativas. A tres años vista, se prevé que los proyectos apoyados con estas ayudas económicas otorgadas permitan generar más de 1600 empleos y facturar en torno a 300 millones de euros.
En cuanto a nuevos proyectos empresariales han predominado aquellos que pudieran ubicarse en el ámbito de la economía digital, la energía y equipos auxiliares y las biociencias. En lo referente a los programas de Innovación e Internacionalización, destaca el número de proyectos presentados por empresas de los sectores de transformación de productos metálicos, equipos industriales, energía y equipos auxiliares, y fabricación y montaje.
Una diferencia significativa respecto a 2015 es que se ha incrementado el número de empresas que han participado en otro tipo de programas y servicios que ofrece Beaz y que tienen como objetivo acelerar iniciativas innovadoras ya existentes y contribuir a la puesta en marcha de nuevos retos.

**¿Cuáles son esos programas y servicios que se han intensificado?**
En 2016 hemos potenciado el Servicio de Aceleración gracias a los convenios que la Diputación Foral de Bizkaia ha firmado con MassChallenge y Cambridge Innovation Center, destacadas aceleradoras internacionales. Dichos acuerdos han permitido que startups vizcaínas trabajen con objetivos concretos de crecimiento con una estancia de seis meses en Boston, entorno que es una referencia mundial en emprendimiento.
Por otra parte, hemos participado en el desarrollo de programas de innovación abierta que han propiciado nuevos marcos de colaboración entre empresas referentes de Bizkaia y startups para desarrollar proyectos de diversificación empresarial y/o de innovación en torno a la industria 4.0.
Es el caso de programas como Bizkaia Open Future o Bind 4.0 que tendrán continuidad en 2017 pues han demostrado que son una buena vía para



Zerbitzu eta programa hauen eta aurretiaz eskaintzen ziren beste batzuen bitartez Beazek Bizkaiko 300 enpresa baino gehiagorekin lan egin du.

**Zergatik aukeratu da enpresa-hazkundea gai nagusitzat Bizkaiko enpresen 6. bileran?**
Urtero gai bat aukeratzen dugu, gure ustez Administrazio legez enpresa egituraren lehiakortasunean laguntzeko garrantzitsua izan daitekeena. Gaia erabakitzerakoan aintzat hartzen dugu ekintzaileek eta enpresek esaten digutena, izan ere horixe da gure zeregin nagusia: haien beharrizan eta etorkizuneko erronketan sakontzea.
Enpresekin egin ditugun bileretan hainbat gai jorratu ditugu, esate baterako nazioartekotzea, mentoringa, startup eta enpresa erreferente edo ETEean arteko lankidetza…
Aurten enpresen hazkunderako prozesuetan laguntzeko dauden bideez hausnartzea erabaki dugu, proiektuen hasierako faseetan ohartutako aukerak hobeto baliatu ahal izateko edo lehiakorrak izaten jarraitzeko beharrezkoak direlako.
Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailean eta, beraz, Beazen, hazkunderako estrategia eta beharrizan desberdinei erantzuna eman nahi dieten tresnak ditugu. Badaude lankidetza, nazioartekotzea edo inbertsio berritzaileak bultzatzeko diru-laguntzak eta baita finantziazio, aholkularitza eta bitartekaritzari dagozkien beste ekimen batzuk ere.
Enpresekin egiten dugun bilerak aukera ematen digu entzuleria zabalaren aurrean geure proposamenak azaltzeko eta haien iritziak entzuteko, oraingo honetan hazkundeari buruz. Bere burua "Bizkaian enpresen sorkuntza eta hazkundea bultzatzen duen sozietate" bezala definitzen duen Beazentzat hori funtsezkoa da. Gure betebeharra da uneoro geure eskaintza berrikustea eta gaurkotzea, baina, batez ere, eskariarekin bat egitea!

abordar proyectos de intraemprendimiento en empresas tractoras y, al mismo tiempo, para facilitar el acceso al mercado y a clientes de referencia a startups tecnológicas.
A través de estos servicios y programas, y de otros que ya se venían ofreciendo, Beaz ha trabajado con más de 300 empresas.

**¿Por qué se ha elegido el crecimiento empresarial como tema central del 6° Encuentro de empresas de Bizkaia?**
Cada año elegimos un tema que consideramos importante como Administración para contribuir a la competitividad de nuestro tejido empresarial. Un tema que se decide teniendo en cuenta lo que nos dicen las personas emprendedoras y las empresas, pues ése es nuestro quehacer principal: profundizar en sus necesidades y retos de futuro.
Así, en los encuentros de empresas hemos abordado temas que van desde la internacionalización o el mentoring hasta la cooperación entre startups y empresas referentes o pymes.
Este año hemos decidido reflexionar sobre formas de apoyar procesos de crecimiento empresarial que puedan maximizar las oportunidades detectadas en fases iniciales de proyectos o que son necesarias para poder seguir siendo competitivos.
Desde el Departamento de Desarrollo Económico y Territorial y por tanto desde Beaz, contamos con herramientas que quieren responder a diferentes estrategias y necesidades de crecimiento. Están las ayudas y servicios que apoyan la cooperación, la internacionalización o las inversiones innovadoras, y también otro tipo de iniciativas que se centran en la financiación, el asesoramiento y la intermediación.
El Encuentro de empresas nos permite contar nuestras propuestas ante un amplio público, pero también escuchar sus opiniones, en este caso sobre crecimiento. Para un Beaz que se define como "sociedad pública que apoya la creación y el crecimiento empresarial en Bizkaia" eso es clave. ¡Es nuestra obligación revisar y actualizar en todo momento nuestra oferta, pero sobre todo, conectarla con la demanda!

# 2017

–

**ON Bizkaia Sariek** Bizkaiko enpresa txiki eta ertainak goraipatzen dituzte gure Lurraldean jarduera ekonomikoa eta lanpostuak sortzeagatik.
Beazek kudeatzen dituen Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Foru Sailaren programetara aurkeztu diren proiektuak eta enpresak izan daitezke hautagai.
Orain arte sei sari ematen ziren, baina laugarren edizio honetan ekintzailetza eta gizarte berrikuntzako proiektuak errekonozitzen dituena ere erantsi da.

Los **Premios ON Bizkaia** son un reconocimiento a las pymes de Bizkaia por su contribución a la generación de actividad económica y empleo.
A ellos optan proyectos y empresas que se han presentado a los programas del Departamento Foral de Desarrollo Económico y Territorial y han sido gestionados por Beaz.
Hasta ahora seis eran los premios que se entregaban. Llegamos a la cuarta edición con la inclusión de una nueva categoría que reconoce los proyectos de emprendimiento e innovación social.

## Egoin

–

**BERRIKUNTZA PROIEKTU SARIA**
Egoinek arkitektura proiektuetarako zurezko eraikuntza eta konponbideak eskaintzen ditu, ingeniaritza, diseinua, fabrikazioa eta muntatzea eginez. Haren ezaugarrien artean bertoko lehengaietan oinarrituta produktu propioa garatzea, hazkunde jasangarriarekiko konpromisoa eta ekoizpenerako teknologian inbertitzea daude. Inbertsio horri esker etengabe berritzen ari dira eta proposatzen dituzten zurezko konponbide aurreratuak oso estimatuak dira, beren balio erantsi eta kalitatearengatik eta ohiko eraikuntzako materialen aldean aukera lehiakorra direlako.

**PREMIO PROYECTO DE INNOVACIÓN**
Egoin se dedica a la ingeniería, diseño, fabricación y montaje de construcciones y soluciones en madera para proyectos arquitectónicos. Entre sus señas de identidad están el desarrollo de producto propio a partir de materia prima local, el compromiso con el crecimiento sostenible, y la inversión en tecnología productiva. Dicha inversión posibilita que innoven constantemente, proponiendo soluciones avanzadas en madera que son valoradas por su valor añadido y calidad, y por representar una alternativa competitiva a los materiales de construcción convencionales.

## Permar

–

**NAZIOARTEKOTZE PROIEKTU SARIA**
Permar Sistemas de Almacenaje S.A. biltegiratzeko konponbideak diseinatzen, fabrikatzen eta instalatzen espezializatuta dago. 108 urteko historia duen enpresa honek sakonki ezagutzen ditu antolakunde baten funtsezko gakoak –produktura moldatzea, bezeroa edukitzea– eta bizi izan dituen hainbat esperientziatara moldatzen asmatu du. 90eko hamarkadatik Europa osoan fabrikak dituzten britainiar taldeen barruan egon dira eta esperientzia horrek azken urteetan aukera eman die, taldeko enpresei produktuak hornitzeaz gain, nazioartekotzeko eta bezeroak bereganatzeko estrategia propioa sortzeko. Duela gutxi Kolonbia, Peru, Panama eta Guatemalan merkatua zabaltzea lortu dute.

**PREMIO PROYECTO DE INTERNACIONALIZACIÓN**
Permar Sistemas de Almacenaje S.A. es especialista en diseño, fabricación e instalación de soluciones de almacenaje. Empresa con 108 años de historia, en su haber están el conocimiento profundo de sus claves como organización –adaptación del producto, fidelización del cliente, cuidada red de distribuidores y representantes– y el haber vivido todo tipo de experiencias a las que han sabido adaptarse. Entre éstas está el ser parte desde los 90 de grupos británicos con fábricas en toda Europa, una experiencia que en los últimos años les ha permitido, además de suministrar productos a las empresas del grupo, generar su propia estrategia de internacionalización y captación de clientes. Recientemente han logrado abrir mercado en Colombia, Perú, Panamá y Guatemala.

## Electrorecycler

–

**ENPRESEN SORKUNTZA PROIEKTU SARIA**
2014an ER Bizkaia XXI sortu zen Bizkaian, 2015eko urtarriletik Electrorecycler izen komertziala daukana. Haren helburua aparatu elektriko eta elektronikoen kudeaketa osoa da, sustatzaileek ondo ezagutzen zuten sektorea alegia. Hain zuzen ere lantaldearen gaitasun tekniko handia eta bikaintasunaren etengabeko bilaketa dira enpresa honen ezaugarrietako bi. Halaber, azpimarratzekoak dira ingurumen eta gizarte konpromisoa; horren erakusgarria da lehentasunez Galdakao inguruko jendea kontratatu nahi dutela, batez ere lana lortzeko zailtasunak dituena. Gaur egun 24 pertsona dira eta bi urtetan fakturazioa ia hirukoiztea lortu dute.

**PREMIO PROYECTO DE CREACIÓN DE EMPRESAS**
En abril 2014 se funda la sociedad ER Bizkaia XXI, empresa que desde enero 2015, responde al nombre comercial de Electrorecycler. Su objetivo es la gestión integral de residuos de aparatos eléctricos y electrónicos, un sector que sus promotores conocían bien. Son precisamente la alta cualificación técnica del equipo y la búsqueda constante de excelencia, dos de los rasgos característicos de esta empresa. Igualmente destacables son su compromiso medioambiental y social, tal y como demuestra su voluntad de contratar prioritariamente gente de la zona de Galdakao y con dificultades de acceso al empleo. Hoy son 24 personas que, en dos años, han conseguido casi triplicar la facturación.

## Bankook

–

**BIZKAIA SORTZAILEA PROIEKTU SARIA**
Bankook enpresa 2012an sortu zuten Bilbon diseinu eta zaintza lehiakorreko profesional batzuek eta 2014. urtetik sukalderako objektuak garatzen espezializatu da. Horretarako Cookplay sortu zuten, sukaldaritza eta kontsumo ohitura berriei erantzuna ematen dieten produktuak diseinatzen, fabrikatzen eta merkaturatzen dituen eta etorkizunerako ideiak proposatzen ausartzen den argitaletxea. Haren lehenengo proiektuak –Jomon baxera– nazioarteko diseinu sari garrantzitsuak irabazi ditu eta aukera eman die 13 herrialdetan egoteko. Gaur egun hiru bilduma dituzte merkatuan.

**PREMIO PROYECTO BIZKAIA CREATIVA**
Bankook es una empresa creada en Bilbao en 2012 por profesionales del diseño y la vigilancia competitiva que, desde 2014, se ha especializado en el desarrollo de objetos de menaje. Con ese fin crearon Cookplay una editora dedicada específicamente al diseño, fabricación y comercialización de productos que dan respuesta a nuevos hábitos culinarios y de consumo, y se aventuran a proponer ideas de futuro. Su primer proyecto –la vajilla Jomon– ha recibido importantes premios internacionales de diseño y les ha permitido estar presentes en 13 países. Actualmente son ya tres las colecciones que comercializan.

## Irrintzi

–

**EKINTZAILETZA ETA GIZARTE BERRIKUNTZA PROIEKTU SARIA**
1962an Irrintzi autoeskola sortu zuten Basaurin, familia-enpresa bat, duela 35 urtetatik ohiko eskolez gain desgaitasun handiak dituzten pertsonen trebakuntzaz arduratzen dena. Erabaki horren ondorioz hainbat eragozpen gainditu behar izan dituzte: legezkoak, homologazio eta harmonizazioari dagozkionak..., baina aurrera jarraitu dute beti. Haren historian hainbat mugarri daude eta 2014an Irrintzi Soluciones Adaptadas bigarren negozio-ildoa zabaldu zuten, desgaitasun larriak dituzten pertsonentzat ibilgailu guztiz pertsonalizatuak saltzeko eta moldatzeko.

**PREMIO PROYECTO DE EMPRENDIMIENTO E INNOVACIÓN SOCIAL**
En 1962 se crea en Basauri Autoescuela Irrintzi, una empresa familiar que, hace 35 años, decidió especializarse en la enseñanza de la conducción para personas con diferentes discapacidades. Su compromiso con el derecho a la movilidad y la seguridad vial les ha llevado a enfrentarse a todo tipo de dificultades, pero también a trabajar intensamente y hacer del "siempre adelante" su lema. Su historia está jalonada de hitos a los que, desde 2014, hay que añadir la constitución de Irrintzi Soluciones Adaptadas, una segunda línea de negocio dedicada a la venta y adaptación totalmente personalizada de vehículos para personas con discapacidades severas.

## Lointek

–

**SPIN-OFF IBILBIDE SARIA**
Duela bi urte Lointek Heavy Industries (LHI) enpresa sortu zen, industria konplexu handietarako galdarak, erreaktoreak edo zutabeak fabrikatzeko helburuarekin. Lointek-en spin-offa den proiektu berriaren xedea tamaina eta pisu handiko piezak fabrikatzea eta hornitzea zen (2000 t-taraino, 150 m luze eta 12 m diametroz), Urdulizko fabrikan ezinezkoa zelako eta enpresak Bizkaian ekoiztu nahi zuen. Bilboko Portuan kokaturik, LHI-k 55000 m² dauzka eta itsasontzietara zuzenean kargatu ahal du; horren ondorioz merkatu-nitxo batera heltzea eta esportatzeko gaitasuna handitzea lortu du.

**PREMIO TRAYECTORIA SPIN-OFF**
Hace ahora dos años se constituía la empresa Lointek Heavy Industries (LHI), dedicada a la fabricación de calderas, reactores o columnas para grandes complejos industriales. Spin-off de Lointek, el nuevo proyecto nacía con la intención de posibilitar la fabricación y suministro de piezas de gran tamaño y peso (hasta 2000 t, 150 m de longitud y 12 m de diámetro) que eran inviables en la fábrica de Urduliz y que la empresa deseaba producir en Bizkaia. Ubicada en el puerto de Bilbao, LHI cuenta con 55000 m² y carga directa a buque que han permitido a Lointek acceder a un nuevo nicho de mercado y reforzar su capacidad de exportación.

## Euskal Kirol Apostuak

–

**STARTUP IBILBIDE SARIA**
Ekasa enpresa 2002. urtean sortu zuten jolas-makinetako ehun operatzaile baino gehiagok, online kirol apustuen negozioa kudeatu ahal izateko teknologia egokia garatzeko helburuarekin. Lehiakortasun bide bakarra berritzea dela irmoki sinesten dute eta 2012an I+G+bko lehenengo ekimena aurkeztu zuten –RETABET ataria–. Horren ondoren beste berrikuntza asko egin dute eta apustuekin zerikusia duten prozesu guztiak bateratzen dituen enpresa bakarra bihurtu da, terminalen diseinu eta fabrikaziotik hasita bide propioetatik saldu arte. Ekasa kirol apustuen operatzaileen alorrean espainiar Estatuan liderra den RETA Taldearen barruan dago.

**PREMIO TRAYECTORIA STARTUP**
Ekasa es una empresa creada en 2002 por más de cien operadores vascos de máquinas recreativas con el objetivo de desarrollar una tecnología capaz de gestionar el negocio de las apuestas deportivas online. Firmes convencidos de que innovar es la única forma de ser competitivos, en 2012 presentaron una primera iniciativa de I+D+i –el portal RETABET– a la que han seguido muchas otras que han convertido a la empresa en la única que integra todos los proceso relacionados con las apuestas, desde el diseño y fabricación de terminales hasta su canal de ventas propio. Ekasa pertenece al Grupo RETA, líder en el ámbito estatal en el sector de los operadores de apuestas deportivas.
















Duela urtebete –2016ko otsailaren 18an– 500 lagunetik gora bilbu ziren BECen lankidetzaz hitz egiteko eta On Bizkaia Sarien hirugarren edizioa ospatzeko. Egun hartan CMI, Kuaderno, Kautenik, Venturmoda, ITP Externals eta Educaedu izenak Bizkaiko Foru Aldundiak beren jardun onarengatik goraipatzen dituen enpresen zerrendan erantsi ziren. Sari bana jaso zuten denek eta, lehenengo lauek, gainera, sei hilabeteko epean bizkortze-prozesuetan espezializatutako aholkuetxe baten eta Beazko teknikoen laguntza ere.

Hace un año –el 18 de febrero de 2016– se juntaban en el BEC más de 500 personas para hablar de cooperación y para celebrar la tercera edición de los premios On Bizkaia. Ese día CMI, Kuaderno, Kautenik, Venturmoda, ITP Externals y Educaedu vieron cómo su nombre se sumaba al de la lista de empresas cuyo buen hacer reconoce la Diputación Foral de Bizkaia. Todas ellas recibieron un galardón y, en el caso de las cuatro primeras, el apoyo durante seis meses de una consultora especializada en procesos de aceleración y de los técnicos de Beaz.



2014
2015
**2016**
–

**Aurreko edizioetan saritutako enpresak**
**Empresas galardonadas en ediciones anteriores**

| 2014 | 2015 | 2016 |
|---|---|---|
| Ariadna Instruments | DB Iberia | CMI |
| RDT Engineers | Protec Arisawa | Kautenik |
| Babcock Valves | Insertec | Kuaderno |
| Artesanía Graci | Relevo Videogames | Venturmoda |
| CAF Transport Engineering | Gestamp Tool Hardening | ITP Externals |
| Grupo Ticketbis | Dynakin | Educaedu |





# Programak
# Programas
–





*“Los proyectos no se consiguen de hoy para mañana, es una carrera de fondo, pero si lo tienes claro tienes que insistir”*

***Isaac Mardaras_*** *Katiak*



*“Ez da bakarrik laguntza ekonomikoagaz lagundu behar, eskutik joan beharra dugu gizarteak daukazan beharrizan desberdinei aurre egiteko”*

***Arkaitz Larrinaga_*** *Mugik-on*

2016an 1200 espediente inguru kudeatu ditugu, gehienak ekintzailetza, berrikuntza, inbertsio eta nazioartekotze programetara aurkeztu ziren proiektuei dagozkienak. Diru-laguntza guztietan oreka dago espediente berrien kopuruaren eta aurreko urteetakoen segimenduari dagozkionen artean.

Aurten industrian manufaktura aurreratu eta IOTeko konponbideak ezar daitezen bultzatzen ahalegindu gara, zenbait laguntza-programatan aplikatzeko zeharkako irizpideak erantsiz. Erabaki horrekin batera, alor horietan gaitasunak indartzeko eta 4.0 industriarantz aurrera egiten laguntzeko baliagarriak diren ekimenak bultzatu ditugu.

Ekintzailetza-ekimenei dagokienez, 2016an aztertu diren enpresa proiektu berritzaileen kopuruak hazkundetxoa izan du.

En 2016 hemos gestionado en torno a 1200 expedientes que, en su mayoría, corresponden a proyectos presentados a los programas de emprendimiento, innovación, inversión e internacionalización. En todas las ayudas hay un equilibrio entre el número de nuevos expedientes y el seguimiento a los de años anteriores.

Este año se ha intentado fomentar la implantación de soluciones de manufactura avanzada e IOT en industria, incorporando criterios trasversales de aplicación en varios de los programas de apoyo. Decisión que se ha respaldado con el impulso a iniciativas que buscan fortalecer las capacidades en dichas áreas y favorecer el avance hacia la industria 4.0.

En cuanto a proyectos de emprendimiento, en 2016 se ha experimentado un ligero incremento del número de proyectos empresariales innovadores analizados.

| 2016 | Lagundutako proiektuak<br>Proyectos apoyados | Enplegu aurreikuspena 3 urtetan<br>Previsión empleo a 3 años | Fakturazio aurreikuspena 3 urtetan<br>Previsión facturación a 3 años |
|---|---|---|---|
| Enpresa proiektuak<br>Proyectos empresariales | 77 | 490 | 58 715 541 € |
| Enpresa berritzaileen sorkuntza<br>Creación empresas innovadoras | 33 | 309 | 35 632 868 € |
| Berrikuntza<br>Innovación | 114 | 234 | 69 919 053 € |
| Inbertsioa<br>Inversión | 86 | | |
| Nazioartekotzea<br>Internacionalización | 113 | 213 | 67 948 841 € |
| 3i berrikuntza, nazioartekotze eta inbertsiorako laguntza osoa<br>3i apoyo integral a la innovación, internacionalización e inversión | 12 | 88 | 41 572 315 € |
| Bizkaia Sortzailea<br>Bizkaia Creativa | 25 | 87 | 6 355 640 € |
| Artisautza<br>Artesanía | 69 | | |
| Bizkaia Digitala | 12 | 58 | 4 924 584 € |
| Gizarte berrikuntza<br>Innovación Social | 20 | 167 | 7 954 384 € |
| Guztira<br>Total | **561** | **1646** | **293 023 226 €** |



# Zerbitzuak
# Servicios
–



*“Bizkaiko Foru Aldundia ausarta izan da eta laguntza eman dio berritzailea eta gizartearentzat onuragarria den proiektu bati”*

***Gloria Gil_*** *Saionaimer*



*“Iniciamos un proyecto de aceleración junto con la Diputación Foral de Bizkaia para reforzar nuestra posición de liderazgo, ampliando mercados y portafolio de productos”*

***Gonzalo Ortega_*** *Protec Arisawa Europe*

Beazek hainbat zerbitzu eskaintzen ditu Bizkaiko ETE eta ekintzaileei laguntzeko. Ekimen horien artean daude, besteak beste, mentoringa, enpresak bizkortzea, berrikuntza teknologikoaren zerga-txostenak prestatzea eta finantziazio eta nazioarteko lankidetza gaietan orientabidea ematea.

Atzera begiratuta, 2016a zerbitzuok finkatzeko urtea izan dela esan dezakegu. Enpresen harrera bikaina izan da eta erruz gainditu dira hasierako aurreikuspenak: diru-laguntza programez onuratu eta zerbitzuetan parte hartu duten enpresen laurdenak baino gehiagok gutxienez bitan esku hartu du.

Beaz ofrece diversos servicios para apoyar a las pymes y personas emprendedoras de Bizkaia. Iniciativas que van desde el mentoring hasta la aceleración, pasando por la emisión de informes fiscales por innovación tecnológica, o la orientación en temas de financiación y de cooperación internacional, entre otros.

Viéndolo con perspectiva, 2016 ha sido el año de la consolidación de dichos servicios. Su acogida por parte de las empresas ha sido excelente, superando con creces la previsión inicial; más de una cuarta parte de las empresas beneficiarias de los programas de ayudas y que han participado en ellos, lo ha hecho por lo menos en dos servicios.

| Zerbitzua / Servicio | 2016ko emaitzak / Resultados 2016 |
|---|---|
| Barne-ekintzailetza bultzatzea<br>Impulso del intraemprendimiento | **Barne-ekintzailetzako 11 proiektuk jaso dute diru-laguntza; hiru urtean 91 lanpostu eta 15,6 M€-ko fakturazioa sortuko dute**<br>Se han apoyado 11 proyectos de intraemprendimiento que generarán 91 empleos y 15,6 M€ de facturación en 3 años<br><br>**Bilerak eta lantegiak egin dira adituekin barne-ekintzailetzari buruz sentikortzeko eta prestakuntza emateko**<br>Se han celebrado encuentros y talleres con expertos para sensibilizar y formar en intraemprendimiento |
| Mentoring | **45 mentorek osatzen duten sarea daukagu eta 16 proiektu mentorizatze-fasean daude zerbitzua abian jarri den lehen urtean**<br>Contamos con una red de 45 mentores y 16 proyectos están en proceso de mentorización en el primer año de lanzamiento del servicio |
| Bizkortzea<br>Aceleración | **7 enpresa bizkortze-prozesuan Beazko teknikariekin eta aholkuetxe espezializatu batekin**<br>7 empresas en proceso de aceleración con técnicos de Beaz y una consultoría especializada |
| Kofinantziatzeko aurkeztutako proiektuak<br>Proyectos presentados a cofinanciación | **Bilerak egin dira proiektu berritzaileak finantziatzen dituzten beste erakunde batzuekin**<br>Se han celebrado encuentros con otras entidades que financian proyectos innovadores<br><br>**12 proiektu aurkeztu dira deialdi hauetara eta 1,8M€-ko finantziazioa lortu da**<br>12 proyectos se han presentado a estas convocatorias y se ha conseguido una financiación de 1,8 M€ |
| Berrikuntza teknologikoaren ziozko zerga kenkariak<br>Deducciones fiscales por innovación tecnológica | **119 txosten egin dira, horietatik 94 onartuta. 1,2M€-ko kenkariak**<br>119 informes elaborados, 94 de ellos aptos. 1,2 M € en deducciones |
| Networking foroak dinamizatzea<br>Dinamización de foros de networking | **Berrikuntza irekiko foroak dinamizatzea enpresa erreferente eta ETEen artean**<br>Dinamización de foros de innovación abierta entre empresas referentes y pymes |
| Gaikuntza-Prestaekin<br>Capacitación-Prestaekin | **Antolatutako 5 gaikuntza-moduluetan 25 startup inguruk parte hartu dute bakoitzean**<br>5 módulos de capacitación en los que han participado en torno a 25 startups por módulo |
| EEN Sareko ekintzak<br>Acciones de la Red EEN | **45 enpresak jaso dituzte laguntza-zerbitzuak**<br>45 empresas han sido beneficiarias de los servicios de apoyo |
| PAE zerbitzua<br>Servicio PAE | **20 SL berri eratuta zerbitzuaren bidez**<br>20 nuevas SL constituidas a través del servicio |
| Zabalkundea<br>Difusión | **Bizkaiko proiektu berritzaileen zabalkundea: 37 bideo prestatzea**<br>Difusión de proyectos innovadores de Bizkaia: elaboración de 37 vídeos |
| BEAZ guneetako jarduerak<br>Encuentros en los espacios BEAZ | **38 erakundek antolatutako 95 ekitaldi: 2.128 pertsona**<br>95 eventos organizados por 38 entidades: 2.128 personas |

## Inkubagailuak
## Incubadoras
–







**113**
Enpresak
Empresas
–

**566**
Lanpostuak
Empleos
–

**28M€**
Fakturazioa
Facturación
–



Gure enpresa inkubagailu eta bizkorgailu sarea bere helburuak betetzen ari da. Okupazioaren erronka gaindituta dago, 2016an lortutako maila handiak agerian uzten duen bezala, eta orain inkubatuta dauden enpresen artean edo kanpoko eragileekin lankidetza indartzea da gure xedea.

Zifrek erakusten dute enpresa eta startup berriak lanpostuak eta fakturazioa sortzen ari direla.

2016an azpimarratzekoak dira Play Station-ekin Beazko Design Kabi-n Play Station Games Camp Bilbao Bizkaia kokatzeko abian jarritako ekimena, EHUko Enpresa Ikasketen Fakultatean ZITEK ekintzaileen gela berria zabaldu izana eta BIC Bizkaia, Kbi digital eta BIC Bizkaia Ezkerraldea-ko bizkortze zerbitzuak.

Nuestra red de incubadoras y aceleradoras de empresas va cumpliendo objetivos. Superado el reto de la ocupación, tal y como evidencia el alto grado alcanzado en 2016, nos marcamos ahora la meta de fortalecer la cooperación entre las diferentes empresas incubadas e incluso con agentes externos.

Las cifras reflejan cómo las nuevas empresas y startups se consolidan como generadoras de empleo y facturación.

Destaca en 2016 la iniciativa lanzada con Play Station para ubicar en el Design Kabi de Beaz el Play Station Games Camp Bilbao Bizkaia, así como la apertura de una nueva aula de emprendedores ZITEK en la Facultad de Empresariales de EHU-UPV y los servicios de aceleración del BIC Bizkaia, Kbi digital y BIC Bizkaia Ezkerraldea.



*"BIC Bizkaian beste enpresa batzuekin elkarlanean aritzeko eta geure artean sinergiak bilatzeko inguru paregabea daukagu"*

***Fernando Echániz_*** *Ingran Engineering*



*"Las personas que están haciendo otro tipo de actividades a veces convergen en las mismas necesidades y, además, tener a los técnicos de Beaz tan disponibles y cerca nos ayuda mucho"*

***Ainhoa de Endaya_*** *Huggo*



## Beste ekimen estrategiko batzuk
## Otras iniciativas estratégicas
–



### Bizkaiko eskualdeetako lankidetza nodoak

Aldundiak bultzatzen duen "Bizkaia lehiakorra eta lurraldeari dagokionez orekatua eraikitzeko eskualdeetako estrategia" proiektuan esku hartzen dugu. Gure helburua garapen ekonomikoa bultzatzea da, baina Bizkaiko eskualde guztietako dibertsitatea aintzat hartuz, aniztasun hori sendotasuna bihur dadin. Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko eta toki garapenerako agentziekin batera lan egiten dugu; gainera, ORKESTRA-Lehiakortasunerako Euskal Institutuaren laguntza daukagu. Elkarrekin eremu bakoitzerako berariazko lantaldeak sortu ditugu. Eskualdeetako erronka giltzarriak identifikatu ondoren jada horiekin lanean ari gara.

### Nazioarteko nodoak

Bizkaiko Foru Aldundiak sustatzen duen "Bizkaia munduarekin konektaturik" estrategiaren baitan zenbait hitzarmen sinatu ditu bertoko startupak nazioarteko merkatu, sare eta inbertsiogileekin konektatzeko.

Horietako bi Bostonen kokatuta dauden MassChallenge eta Cambridge Innovation Center (CIC) enpresa-bizkorgailuekin sinatutakoak dira.

2016an lehenengoaren bitartez Bizkaiko 55 enpresa sortu berrik MassChallenge-Biscay lehiaketan parte hartu ahal izan zuten eta haietako 10 astebetez Bostonen egon ziren beren negozio-eredua definitzeko lanean.

CICi dagokionez, esperientzia sei hilabetekoa da eta horien bitartean bizkortze-prozesu trinkoa egiten da. Jada Bizkaiko 7 star-up daude Bosteneko CICen.

### Aukera-eremuak

Gure iritziz aukera-eremuak izan daitezkeen gaietan lan egiten dugu: berrikuntza alorrean, teknologia aurreratuetan eta abarretan, izan ere, epe ertainean enpresentzat ezinbestekoak edo hazkunderako aukera izango direla uste dugu.

Hauxe da 4.0 industriaren, ekonomia zirkularraren edo zilarrezko ekonomiaren kasua. Gaur egun Bizkaiko industria sektorea 4.0 industriarantz aldatzen laguntzen duten bi proiektutan elkarlanean ari gara: Bizkaiko Foru Aldundiak eta Telefónicak sustatzen duten Bizkaia Open Future_n, eta Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko hiru Aldundiekin batera bultzatzen duen Bind 4.0 programan.

Halaber, Europako zenbait proiektutan ere esku hartzen dugu –Retrace, Human Cities– ekonomia zirkularra edo sormen-industria bezalako esparruetan Europako lurralde lankidetza bultzatzeko.

### BiDC

Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak, Bilbo-Bizkaiaren garapen ekonomikoa bultzatzeko eta nazioartean zabalkundea lortzeko, sortu zuten lankidetza publiko-pribatuko ekimen honen idazkaritza nagusia daramagu, Bilbao Ekintza-rekin batera.

Haren jarduera nagusia hamar sektoretan burutzen da: arkitektura, artea, artisautza, bideo-jokoak, diseinua, komunikazioa, eduki digitalak, ikus-entzunezkoak, barrualdeetako diseinua eta moda. Haien ezaugarri nagusia gazteentzako lanpostuak sortzea eta gure etorkizunerako konponbide ezberdin eta estrategikoak aurreratzeko eta proposatzeko gaitasuna izatea da.

BiDC zuzentzen duen Kontseilua sormen-industrien garapenean diharduten Bizkaiko ekonomia, kultura eta akademia alorreko 32 erakunde esanguratsuk osatzen dute; halaber, sormen sektoreetako 200 enpresa baino gehiagok osatzen duten foroa dago.

### Nodos de colaboración zonales de Bizkaia

Participamos en el proyecto "Estrategia Comarcal para la construcción de una Bizkaia competitiva y territorialmente equilibrada" que impulsa la Diputación. Lo hacemos con el objetivo de apoyar un desarrollo económico que considere la diversidad de las distintas áreas de Bizkaia y haga de esa pluralidad una fortaleza. Junto con personal técnico del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial colaboramos con agencias de desarrollo local; contamos, además, con el apoyo de ORKESTRA-Instituto Vasco de Competitividad. Hemos formado equipos específicos para cada zona y tras identificar retos comarcales clave, estamos ya trabajando en ellos.

### Nodos internacionales

En el marco de la estrategia "Bizkaia conectada al mundo" que promueve la Diputación Foral de Bizkaia, ésta ha suscrito varios convenios que buscan conectar a startups locales con mercados, redes e inversores internacionales.

Es el caso de los acuerdos firmados con MassChallenge y Cambridge Innovation Center (CIC), aceleradoras ambas ubicadas en Boston.

En 2016, el primero permitía que 55 empresas de nueva creación vizcaínas participasen en la competición MassChallenge-Biscay y que 10 de ellas trabajasen en la definición de su modelo de negocio durante una semana en Boston.

En lo que respecta al CIC, la experiencia se prolonga durante seis meses en los que se sigue un proceso intensivo de aceleración. Ya son siete las start-ups de Bizkaia que están en el CIC de Boston.

### Ámbitos de oportunidad

Trabajamos en los que consideramos ámbitos de oportunidad, temas que se presentan en el área de la innovación, las tecnologías avanzadas, etc. y que serán ineludibles para las empresas o una oportunidad de crecimiento a medio plazo.

Es el caso de la industria 4.0, la economía circular o la economía plateada. Actualmente colaboramos con dos proyectos que apoyan la transición del sector industrial vizcaíno hacia la Industria 4.0. Bizkaia Open Future_, iniciativa que promueven la Diputación Foral de Bizkaia y Telefónica, y Bind 4.0, programa impulsado por el Gobierno Vasco con la colaboración de las tres Diputaciones.

Somos parte también de distintos proyectos europeos –Retrace, Human Cities- que impulsan la cooperación territorial europea en ámbitos como la economía circular o las industrias creativas.

### BiDC

Junto con Bilbao Ekintza asumimos la Secretaría general de esta iniciativa de cooperación público-privada puesta en marcha por el Ayuntamiento de Bilbao y la Diputación Foral de Bizkaia con el fin de promover las industrias creativas como factor de desarrollo económico y de proyección internacional de Bilbao Bizkaia.

Su actividad se centra en diez sectores -arquitectura, arte, artesanía, videojuegos, diseño, comunicación, contenidos digitales, audiovisual, diseño de interiores y moda- que tienen en común el ser generadores de empleo joven y su capacidad para anticipar y proponer soluciones diferenciadas y estratégicas para nuestro futuro.

BiDC se rige por un consejo compuesto por 32 entidades vizcaínas relevantes de los ámbitos económico, cultural y académico e implicadas en el desarrollo de las industrias creativas; cuenta, además, con un foro integrado por más de 200 empresas de distintos sectores creativos.

## Beaz 2017
–



## 2017ko erronka: hazkundea bultzatzea

Beazko lantaldean Bizkaiko enpresa sarearen lehiakortasunarekin konprometiturik gaude. Gure helburu nagusia zuek zarete –pertsona ekintzaileak eta proiektu berritzaileak dituzuen enpresak–, eta, horregatik, diru-laguntza eskaintza eta bestelako zerbitzu eta ekimenak zuenganatzen ahalegintzen gara, merkatura irteteko, finkatzeko eta hazteko zuen erronketan laguntzeko asmoz. Lan hau Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko eta haren menpean dauden Seed Capital Bizkaia, Azpiegiturak eta Bizkaia Talent sozietateetako arduradun eta teknikoekin elkarlanean burutzen dugu.

2017an, ohiko lan-ildoei helduta, berebiziko garrantzia eman nahi diegu hazkunderako tresnei. Izan ere, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak diru-hornidura handitu du eskuartean dituzuen proiektuetarako tamainako jauzi kualitatiboa emateko asmoz, merkatuan daukazuen posizionamendua indartuz eta lanpostuak ekarriko dituen jarduera ekonomikoa sortuz. Alor honetan azpimarratzekoa da 3I programa, 4 800 000 €-rekin hornituta. Halaber, startupei dagokienez, bizkortze-prozesuei ekiteko aurrekontu-hornidura handiagoa duten diru-laguntza ildo berriak zabaldu dira.

Zerbitzuei gagozkiela, gure asmoa Bizkaiko 400 enpresarekin jardutea da. Horretarako, gure eskaintza handitu dugu enpresak bizkortzeko beste bide batzuk erantsiz, nazioarteko erreferentziako nodoekin hitzarmenen bidez. Gainera, enpresetan berrikuntza irekiko estrategiak bultzatzeko ekimen berriak garatzen ari gara, barne-ekintzailetza eta dibertsifikazio-prozesuak aurrera eraman ahal izateko.

Badakigu jakin hazkunde-prozesuek finantziatzeko-linea berriak behar dituztela eta, horrenbestez, urtean zehar jakinaraziko diren bestelako formulak garatzeko lanean ari gara.

Ezin ditugu ahaztu negozio-aukera berritzaileak sortzen dituzten eremu estrategikoetako lan-ildoak; horiek ere lantzen ari gara zuekin konpartitzeko, besteak beste ekonomia zirkularra, zilarrezko ekonomia eta 4.0 industria.

Hau guztia lortzeko, Bizkaiko ekintzailetza eta berrikuntza ekosistemako eragile legez, teknologia, jakintza, sektore, eskualde eta abarretako gainerako eragileekin elkarlanean aritzen gara, Bizkaia lehiakorragoa izan dadin indarrak batzen saiatuz.

## El reto del 2017: apoyar el crecimiento

El equipo de Beaz estamos comprometidos con la competitividad del tejido empresarial de Bizkaia. Ponemos el foco en vosotros -las personas emprendedoras y las empresas con proyectos innovadores- y tratamos de acercaros la oferta de ayudas y otro tipo de servicios e iniciativas con el fin de apoyaros en vuestros retos de lanzamiento, consolidación y crecimiento. Esta labor la realizamos en colaboración con los responsables y técnicos del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial y de otras empresas públicas dependientes del mismo, como son Seed Capital Bizkaia, Azpiegiturak o Bizkaia Talent.

En 2017, manteniendo las líneas de trabajo habituales, queremos dedicar especial atención a las palancas de crecimiento. De hecho, el Departamento de Desarrollo Económico y Territorial ha incrementado la dotación para aquellos proyectos con los que aspiráis a dar un importante salto cualitativo, fortaleciendo vuestro posicionamiento en el mercado y generando actividad económica que se traduzca en generación de empleo. En este sentido, destaca el programa 3i dotado de 4 800 000 €. Igualmente, en el caso de las startups, se abren nuevas líneas de ayuda para abordar procesos de aceleración con una mayor dotación presupuestaria.

Desde el punto de vista de los Servicios, aspiramos a interactuar con 400 empresas de Bizkaia. Con ese fin hemos ampliado nuestra oferta incorporando otras vías para la aceleración a través de acuerdos con nodos internacionales de referencia. Además, estamos desarrollando nuevas iniciativas para impulsar estrategias de innovación abierta en las empresas que permitan impulsar procesos de intraemprendimiento y diversificación.

Conscientes de que los procesos de crecimiento requieren también nuevas herramientas de financiación, estamos trabajando en el desarrollo de fórmulas renovadas que a lo largo del año se darán a conocer.

Y todo ello sin olvidar líneas de trabajo que responden a ámbitos estratégicos y propician oportunidades de negocio novedosas, y en las cuales estamos ahondando para compartirlas con vosotros, es el caso de la economía circular, la economía plateada y la industria 4.0.

Para todo esto, como agente del ecosistema de emprendimiento e innovación de Bizkaia que somos, interactuamos con otros agentes tecnológicos, del conocimiento, sectoriales, zonales, etc., tratando de aunar fuerzas para contribuir conjuntamente a una Bizkaia más competitiva.



## Bizkaia
–

### Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saila begi-kolpe batean

- **Nazioartekotzea**
  - ETEak nazioartekotzeko programa
  - Nazioarteko partzuergoak sustatzea
  - Bizkaiext: nazioartekotzeko informazio eta aholkularitza
  - Euskal enpresak nazioartekotzeko programa eta zerbitzuen gida
- **Ekintzailetza eta berrikuntza**
  - MassChallenge lehiaketa
  - Egin eta Ekin programa
  - Enpresa proiektu berritzaileak
  - Enpresa berritzaileak sortzea
  - Bizkaia Sortzailea
  - Ekintzailetza eta gizarte berrikuntza
  - Artisautza sektorea
  - Inkubagailuak
  - ETEetan berrikuntza sustatzeko programa
  - Berrikuntza estrategikoan laguntzea
  - Elkarlanean programa
  - Kudeaketa aurreratuko Kudeabide programa
- **Industria**
  - Elkartegiak
  - Gislur
  - 3i programa
- **Talentua**
  - Bikaintasunerako prestakuntza
  - Espezializaziorako ikasgelak
  - Be Basque Talent Network
  - Bizkaia: talent
- **Errepideak**
  - Bidesariak eta laguntza ekonomikoak
  - Trafikoari buruzko informazioa
  - Bizkaiko errepideak
  - Errepideen katalogo bisuala
- **Turismoa**
  - Turismoa Bizkaian
- **Beste batzuk**
  - Bizikletak
  - Bizkaiko zaratari buruzko mapa
  - Zarataren arloko ekintza plana

### El Departamento de Desarrollo Económico y Territorial de un vistazo

- **Internacionalización**
  - Programa de Internacionalización de PYMES
  - Fomento de consorcios internacionales
  - Bizkaiext: información y asesoría en internacionalización
  - Guía de programas y servicios para la internacionalización de las empresas vascas
- **Emprendimiento e innovación**
  - Competición MassChallenge
  - Programa Egin eta Ekin
  - Proyectos empresariales innovadores
  - Creación de Empresas Innovadoras
  - Bizkaia Creativa
  - Emprendimiento e innovación social
  - Sector artesanal
  - Incubadoras
  - Programa de promoción de la innovación en pymes
  - Apoyo a la innovación estratégica
  - Programa Elkarlanean
  - Programa Kudeabide de gestión avanzada
- **Industria**
  - Elkartegiak
  - Gislur
  - Programa 3i
- **Talento**
  - Formación de excelencia
  - Aulas de especialización
  - Be Basque Talent Network
  - Bizkaia: talent
- **Carreteras**
  - Peaje y ayudas económicas
  - Información sobre el tráfico
  - Carreteras de Bizkaia
  - Catálogo visual de carreteras
- **Turismo**
  - Turismo en Bizkaia
- **Otros**
  - Bicicletas
  - Mapa del ruido de Bizkaia
  - Plan de acción en materia de ruido

**944 068 008**
**bizkaia.eus**

Beaz

–

## Gure erronketan lagun ditugu

**Azpiegiturak** Bizkaiko Foru Aldundiak Lurralde osoan enpresen esku jartzen duen azpiegitura-eskaintza eraikitzeaz eta kudeatzeaz arduratzen den sozietate publikoa da. Haren ekite-ildoen artean azpimarratzekoak dira enpresa berriak ezartzea eta sortzea errazten duten enpresa azpiegituren kudeaketa eta jada finkatuta dauden enpresak finka daitezen industria lurzorua sustatzea eta eskuratzea. Halaber, gizarte ekipamenduak eta kirol azpiegiturak eraikitzeaz eta ustiatzeaz eta etxebizitzetan Ekiteko Foru Planaz ere arduratzen da.

**Bizkaia talent** Bizkaira-Euskadira talentua erakartzeko eta atxikitzeko elkarte pribatua da, Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatua.

Haren helburua gaitasun handiko profesionalak gure Herrira erakartzeko eta atxikitzeko ekosistema egokia sortzea da. Horretarako zenbait zerbitzu garatzen dituzte, besteak beste gaitasun handiko profesionalak kontratatzeko diru-laguntza Programa, Location eta Be basque Dual Career Centre zerbitzuak, eta Be Basque Talent Network edo EuReTalent Network bezalako nazioarteko sareak sortzeko zerbitzua.

Haren erronken artean badago ere gaitasun handiko euskal profesionalak atxikitzekoa, Talentia zerbitzuaren bidez gauzatzen dutena.

**Seed Capital Bizkaia** mota itxiko Inbertsio Erakundeen Sozietate Kudeatzailea da eta haren helburua zenbait inbertsio-tresna kudeatzea da. Gaur egun hiru Kapital-Arrisku Funts eta Arrisku-Kapitaleko Sozietatea-ETE kudeatzen ditu.

Haren xedea enpresa sortu berriak edo jada finkatuta daudenak sustatzea eta garatzea da, hurrengo helburua dutenean: proiektu berritzaileen garapena; produktu, merkatu edo ekoizpen prozesu berriak; kudeaketa hobetzea; antolaera, egonkortasuna edo jarraipena; etorkizunerako proiekzioa; lanpostu egonkorrak eta aberastasuna sortzea. Horretarako kapital-arriskuaren ohiko tresnak erabiltzen ditu, hala nola kapitalean partaidetza hartzea edo partaidetzako maileguak.

## Compartimos estos retos con

**Azpiegiturak** es la sociedad pública que se encarga de construir y gestionar la oferta de infraestructuras que la Diputación Foral de Bizkaia pone a disposición de las empresas a lo largo de todo el Territorio. Entre sus líneas de actuación destacan la gestión de infraestructuras empresariales que facilitan el establecimiento y la creación de nuevas empresas, así como la promoción y adquisición de suelo industrial para el asentamiento de empresas ya consolidadas. Se ocupa también de la construcción y explotación de equipamientos sociales e infraestructuras deportivas, así como del Plan Foral de Actuación en vivienda.

**Bizkaia talent** es la asociación privada para la atracción, retención y vinculación del talento a Bizkaia-País Vasco impulsada por la Diputación Foral de Bizkaia.

Su objetivo es generar un ecosistema adecuado para atraer y retener a profesionales con alta cualificación en nuestro país. Para ello desarrollan diferentes servicios, entre ellos el Programa de Ayudas a la contratación de profesionales altamente cualificados, el servicio Location y Be basque Dual Career Centre, o el de creación de redes internacionales, como la Be Basque Talent Network o la EuReTalent Network.

Entre sus retos está también la retención de profesionales vascos con alta cualificación, objetivo que abordan a través del servicio Talentia.

**Seed Capital Bizkaia** es una Sociedad Gestora de Entidades de Inversión de tipo cerrado que tiene por objeto la gestión de diferentes instrumentos de inversión. Actualmente gestiona tres Fondos de Capital Riesgo y una SCR-Pyme.

Su misión es la promoción y desarrollo de empresas de nueva creación o existentes que pretendan el desarrollo de proyectos innovadores, nuevos productos, mercados o procesos productivos, mejoras en la gestión, organización, estabilidad o continuidad, proyección de futuro, creación de empleo estable y generación de riqueza. Para ello utiliza instrumentos clásicos del capital riesgo como son la toma de participación en capital o los préstamos participativos.

Bizkaia
beaz

Sabino Arana, 8
48013 Bilbao
Tel.: 944 395 622

beaz@bizkaia.eus

Informazio gehiago nahi izanez gero, mesedez ikusi

Para más información, por favor, visita

**beaz.bizkaia.eus**

Aurkituko gaituzu:
Búscanos en:

BIZKAIA ENPRESA
BILERA•ENCUENTRO